

Apirilaren 14an
JAUNAREN NEKALDIKO ERRAMU IGANDEA

Agurra

Aitaren eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. R/. Amen.

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituekin.

Sarrerako oharpena (*Batzarburuak berak*)

Senide maiteok: Garizumako aldi honetan, bihotzak prestatzen aritu gara penitentziaz eta maitasun-egintzaz. Hurbil dugu Pazko gau Santua. Eliza guztiarekin batean bildu gara gaur, Jaunaren pazko-misterioa gertaberritzeari hasiera emateko. Misterio hori, Jesu Kristoren nekaldia eta piztuera dira. Horretarako sartu zen Jesus Jauna Jerusalemgo hiri santuan.

Beraz, gu salbatzeko egin zuen sarrera haren oroipena ospa dezagun fedez eta maitasunez, eta jarrai diezaiogun eta lagundu gure Jaunari, Haren gurutzean bat eginda, Haren piztueran eta bizian ere bat egin dezagun.

Bedeinkapen otoitza

Ondoren eskuak bildurik otoitz hauetako bat egingo du.

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
 bedeinka itzazu + erramu adar hauek,
 eta egizu Kristo gure erregeri
 goraka eta kantari jarraitzen diogunok
 Beronen bidez betiko Jerusalemara iritsi gaitetzela.
 Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Edota:

**Indar ezazu, Jauna, Zugan uste on dutenen fedea
eta entzun bihotz onez gure otoitzak:
gaur Kristo Erregeri erramu adarrekin laguntzen diogunok
Beronengan irauin dezagun
eta egintza onen fruituak eman ditzagun.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Erramuak ur bedeinkatuz zirtatuko ditu isilik. Ondoren (intsentsua erabiltzen bada liburua lurrinduz) Ebanjelioa hots egingo du.

Ebanjelioa

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik (19, 28-40)

Aldi hartan, Jesus Jerusalemgo bidean gora abiatu zen denen aurretik. Betfage eta Betaniara hurbildu zenean, Oliamendi deritzanaren ondoan, bere ikasleetako bi bidali zituen, esanez: «Zoazte aurreko auzo horretara; eta, hor sartzean, astakume bat aurkituko duzue lotuta, oraindaino gainean inor jarri ez zaiona. Askatu eta ekardazue. Eta inork galdetuko balizue, zergatik askatzen duzuen, zuek erantzun: "Jaunak behar du"».

Joan ziren bidalitakoak, eta Hark esan bezala aurkitu zuten. Eta astoa askatzen ari zirela, jabeek esan zieten: «Zergatik askatzen duzue astoa?» Eta haiek erantzun: «Jaunak behar du».

Eraman zioten Jesusi, eta beren soinekoak asto gainean ipinita, gainera igotzen lagundu zioten. Eta aurrera zihoala, jendeak bere soinekoak zabaltzen zizkion bidean. Oliamendiren beheko aldera hurbildu zenean, ikasle talde osoa pozez beterik, oihuka hasi zen Jaungoikoa gorensten, ikusi zituzten mirari guztiengatik, esanez:

«Bedeinkatua, Jaunaren izenean errege datorrena!

Bakea zeruan eta aintza zero goienetan!»

Jende arteko farisear batzuek esan zioten: «Maisu, isileraz itzazu zeure ikasleak!» Jesusek erantzun: «Hara Nik esan: hauek isiltzen badira, harriek egingo dute deiadar».

Prozesioa

Ohargileak prozesiorako gonbidapena egin dezake hitz hauekin:

Erramu-adarrak eskuetan ditugula, Jesus goretsi zuen jendearen antzera, lagun diezaiogun guk ere Jaunari, pozez kantari.

Damu-otoitza

Prozesiorik eta Sarrera Nagusirik egin ez denean bakarrik. Herria agurtu eta Damu-otoitza egingo da, eta ondoren kolekta-otoitza.

«Pazko festaburua baino sei egun lehenago, Jauna Jerusalem sartzean, bidera atera zitzaizkion haurtxoak, palmadarrak eskuetan zituztela eta pozez oihuka: Hosanna zero goienetan! Bedeinkatua Zu, erruki handiz gugana zatozen Hori!».

Jo dezagun guk ere Jaunarengana, eta eska diezaiogun Bere errukiz berri gaitzala Aste Santuaren hasiera honetan.

- Jesus Jauna, bekaturik izan ez arren geure bekatuen zama hartu zenuena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, gure bekatuen barkamenarako gurutzean odola isuri zenuena: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, hilen artetik piztuz heriotza garaitu zenuena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

Otoitza

Aldarera iritsi eta agurtu ondoren, jarlekura joango da eta otoitza esango du:

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
gizon-emakume guztiei apaltasun bidea erakusteko,
gure Salbatzailea gizon egitea
eta gurutzean hiltzea nahi izan zenuen;
iguzu, arren,
Haren nekaldiko irakaspenak gogoan har ditzagula,
Harekin batera piztu gaitzen.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Bizia ematen dakien Jainkoaren irakaspenak gure itxaropena arnasberritzen du. Beheratzen dakiena gertatuko da gizadiaren altxagarri eta heriotzatik piztuerara igarotzeko bide. Bera hitzak sendotzen gaitu.

Lehenengo irakurgaia (Is 50, 4-7)

Isaias profetaren liburutik

Ikasi baten mihia eman dit nire Jaunak, hitz bizkorgarria eman diezaiedan nekatuei; belarria esnatzen dit goizero, ikasiek bezala entzun dezadan. Jaunak belarria ireki dit, eta nik ez diot gogorrik egin; ez dut atzera egin. Bizkarra ipini diet, jotzen nindutenei; masaila, bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei. Ez diet aurpegia saihestu irainei eta listuei. Nire Jauna nuen laguntzaile; horregatik ez nintzen lotsatu; horregatik ipini nuen aurpegia, harri gogor bezala; eta badakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

Erantzun-salmoa (*Sal* 18, 8-9. 10-11)

Ni - re Jain-ko - a, nun zau - de Zu? No -la es-ku-
 tik u - tzi nau - zu.

Ikusten nautenak honela ari zaizkit barreka,
 ezpain-keinu eta buru-eraginka:
 «Jaunagan du uste on, salba beza;
 maite badu, onik atera beza.» R/.

Zakur-taldeak nauka inguraturik,
 gaizkile-sailak erdian harturik.
 Esku-oinak zulatu dizkidate,
 hezur guztiak bat-bana ditzaket. R/.

Nire jantziak berentzat banatzen dituzte,
 nire soinekoa zotz egiten dute.
 Zu, ordea, Jauna, ez egon urrun,
 Zu, nire indar, zatozkit azkar nire lagun. R/.

Neure senideei zure izena diet iragarriko, '
 batzarraren erdian zaitut goretsiko:
 «Goretsazue Jauna, beldur diozuenok,
 Jakoben seme-alaba guztiok, ospa ezazue,
 izan Haren beldur, Israelen seme-alaba guztiok.» R/.

Bigarren irakurgaia (*Flp 2, 6-11*)

San Paulo Apostoluak Filipotarrei

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi Jainkoarekin berdin izateari; bestela baizik, bereaz hustu egin zen, morroi izaera hartuz, eta beste edozein bezala azalduz. Eta gizon bezala agerturik, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzeko heriotzaraino. Horregatik Jainkoak goratu egin zuen, eta izen guztien gaineko izena eman zion, Jesusen izenera belaun guztiak makur daitezzen, zeruan, lurlean eta lurpean, eta mihi guztiek aitortuz: Jesu Kristo, Jauna da, Aita Jainkoaren aintzarako.

Ebanjelio-aurreko gorapena (*lk. Flp 2, 8-9*)

Je - su - kris - to gu - ri min - tza, ar - gi gu - re bi - ho - tza.

Kristo gugatik menpeko egin zen heriotzaraino,
gurutzeko heriotzaraino.

Horregatik Jainkoak goratu egin zuen,
eta izen guztien gaineko izena eman zion. R/.

Ebanjelioa (*Lk 22, 14 – 23, 56*)**Homiliarako argibideak**

Barka iezaiezu, Aita, ez baitakite zertan ari diren

Kristauon Aste Nagusiaren atarian gaude dagoeneko. Jesus, bere semea, entregatuta Jainkoak erakusten duen maitasunaren misterioa

ospatuko dugu Aste horretan. Bekatuen barkamena eta Jainkoarekiko zein gure anaia-arrebekiko adiskidetzeara da maitasun errukitsu horren erakustaldi nabarmenena. Elkarren etsai izateari utzi diogu, eta anai-arreba gisa, Aita beraren seme-alaba gisa, bizitzeko aukera dugu. **Bizimodu berria** eskatzen digu horrek, indarkeriazko eta mendekuzko gure munduarekin bat ez datorrena. Jesusen barkamena eskatu du guretzat, ongi baitaki nolakoak garen. Askotan, ez dugu jakiten zer egiten dugun. Inork ez du egiten gaizkia hori maite duelako; itsututa, benetako ongia eta gutxienez atsegina iruditzen zaigun ongia iruditzen zaiguna nahasten ditugu.

Erramu Igandean, Jesusen bizitzako bi gertakari nagusiak ikusten ditugu: haren heriotza eta loria. Jerusalemen arranditsu sartzeak haren **behin betiko garaipena** iragartzen du (Lk 19,28-40). Ez dugu ahaztu behar piztuerarantz goazela, baina pasioa pairatu behar dugula aurrena. Jesusek Jainkoaren Erregetza iragarri zuen, eta hainbat keinu profetikoren bitartez egikaritu zuen: bekatariekin janda edo mirariekin. Hiriburuan solemnitaterik sartuz hasi nahi izan zuen, Erregetzaren zain zeudenen gorespenean artean. Bere fedea eta Jesusenganako konfiantza aitortzen dituen lapur ona berehala sartuko da Erregetza horretan. Nekaldiaren gaurko eta Ostiral Santuko irakurketak dentsitate berezia ematen dio gurutzearen misterioari, Jesusen mundua berrerozko erabili zuenari. Jokoz kanpo dauden **ikusle** soil giza ez, baizik eta gu ere Jaunaren nekaldian sartuta ikusiko dugu nekaldi hori. Sar gaitezen pertsonaien barruan. Lehenik eta behin, identifika gaitezen Jesusekin "ni maitatu eta bere bizia niregatik eman zuenarekin". Ikus ditugun **Aitarekiko eta gizakiekiko** bere **maitasunezko** sentimendu sakonak. Jainkoa zela, loria guztia alde batera utzi eta pertsona pobre eta xume bihurtu zen. Are gehiago: menpeko egin zen, gurutzearan hiltzeraino (Filip 2,6-11). Lurreko pobreenekin solidario izan ahal izateko gizaki huts bihurtze horrek beteko du

Jainkoz piztueran. Giza jakinduriaren begitan, erokeria da gurutzearen misterioa, baina Kristorengan sinesten dutenentzat, Jainkoaren maitasunaren, indarraren eta jakinduriaren erakusgarri da. Bere Jaunarengandik ikasi nahi duen **ikaslearen bihotzarekin** sartu behar da gurutzearen misterioaren, bizia galtzeari beldurrik eduki gabe. San Lukasen nekaldian, etsaiek bidegabe pertsegitutako errugabearen gisa ageri da Jesus (Lk 22,14-23,56). Haren sufrimenduak Aitak bide okerretik joandako seme-alaba guztiekiko duen maitasuna eta errukia erakusten du. Kristoren gurutzeak ez du tragikotik ezertxo ere, ikasleak bere Jaunari jarraitzeagatik bizitzan jasan beharreko atsekabe eta kontraesan guztiei aurre egiteko behar duen maitasuna erakusten du.

Nekaldiko gainerako pertsoneri erreparatzeak gure bizitzaren eta gure bekatuaren errealitatea ikusten ere laguntzen digu. **Judasek**, Jesus salatu zuen apostoluak, erakusten digu guk ere saldu dezakegula Jesus, eta, ondoren, desesperazioan galdu. **Pedrok ere ukatu zuen, baina bere bekatuagatik negar egiten jakin zuen.** Gainerako apostoluak beldurragatik abandonatu zuten, baina Harengan sinetsi zuten berriz ere piztu zela ikusi zutenean. **Pilatok** eskuak garbitu zituen, errugabetasun keinu gisa, baina errugabea zigortu zuen, enperadorearen adiskidetasuna ez galtzeko. **Herodes**, mirariren bat ikusteko jakin-minez, Pilatorekin adiskidetu zen, eta Jesus bidali zion, epaitu zezan. **Apaiz nagusiek** biraiogiletzat zuten Jesus, errukia eta barkamena dakartzan Jainko bat iragarri baitzuen. Gaur egun jarraitzen duen Jesusen nekaldiko zein pertsonaia zara zu? Eukaristian eguneratzen da Jesusen nekaldia. Jesusen gorputza hartzean (Jauna hartzean), haren heriotzan eta piztueran parte hartzen dugu. Has dezagun Aste Santua animoz beterik, eta lagun diezaiogun Jesusi aste horretan, Pazkoaren poztasunera iristeko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: gurutzean Aitari otoitz egin zion Jesus Salbatzaileari eska diezaiogun gure alde eta gizaki guztien alde:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky -ri-e, e - lei - son!

—Gurutzean bere erasotzaileen alde otoitz egin zuen Jaunak, izan dezala erruki bekatu egin dutenentzat, eta adiskidetzearen bidetik eman diezaiera barkamena eta bakea. Egigun otoitz.

—Jesusen eskaintza izan dadila lagungarri ezjakintasunak, gogorik ezak, gaitzakeriak edota tentaldi orok Jainkoagandik urrundu dituenentzat. Egigun otoitz.

—Gurutzean bakardaderen tristura eta garratzasuna nozitu zituen Jaunak izan dezala kupida gaixoeekin, atsekabetuekin eta zapalduekin, eta gure bihotzak ere horiei begira jar ditzan. Egigun otoitz.

—Lapur ona paradisuari hartu zuen Jaunak, eman diezagula guri ere bihotz-berritzeko gogoia eta har gaitzala egun batean bere bakezko erreinuan. Egigun otoitz.

—Garizumako bidean aurrera eginez bihotz-berrituak eta argituak iris gaitezen gertu ditugun Pazko jaietara. Egigun otoitz. R/.

Jainko ahalguztidun betierekoa, zeure Semea mundura bidali zenuen, bere nekaldiaz bekatua eta heriotza suntsitu eta bere piztueraz bizitza eta zoriontasuna guri eskuratzeko; entzun zeure herri honen otoitzak, eta egizu goza ditzagula Jesu Kristoren gurutze aintzatsuaren fruituak. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Hitzaren liturgian entzuna, gertatu egiten da orain aldarean. Kristok kalbarioan bezala bere bizia ematen du ogi zatitu honetan eta ardo honetan. Bat egin dezagun Aitari eskerrak ematerakoan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Zure misterio santuez indarberiturik,
otoizka gaituzu, Jauna:
zure Semearen heriotzari esker,
itxaroten ditugu geure sinesmenak agintzen dizkigunak;
egizu, beraz, Haren piztueraz irits ditzagula.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Bukaerako oharra

Bagoaz Jesusen eskutik. Aukera ugari izango dugu aste honetan Kristoren heriotza eta piztuera gertaberritzeko. Ahalegin berezia egin behar genuke guztiok larunbat santu gauean Kristoren Piztuera ospatzera biltzeko. Hori da, dudarik gabe, urteko elizkizun nagusia.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Begira, Jauna, zeure familia honi,
honengatik nahi izan baitzuen Jesu Kristo gure Jaunak
bere bizia gaizkileen eskuetan utzi
eta gurutzeko heriotza hartu.**

Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. R/. Amen.

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.
Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.**

Herriaren gaineko otoitzaren orde, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia:

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Errukiaren Aitak maitasunaren ikasbidea eman dizue
bere Semearen nekaldian;
Jainkoaren eta gizakien zerbitzari egin zaitzatela,
eta eman diezazuela bere bedeinkapenik onena. R/. Amen.**

**Kristoren heriotzak
betiko heriotzatik atera zaituztenez gero,
betiko bizitza ere eman diezaizuela. R/. Amen.**

**Kristori maitasun-bidean jarraituz,
beraren lagun izan zaitezte piztueran ere. R/. Amen.**

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.**